



GOIERRIKO IV. RALLYSPRINTERRA

Martxoaren 18an, larunbata, IV. Goierri rallysprinterra egingo da.

Rallyak Lazkaon izango du irteera, Zaldibiatik Abaltzisketarako bidea egin eta Gaintzara zuzenduko da. Hori dela eta, 12:30etatik iluntzeko 21:00ak arte Zaldibiatik Abaltzisketara datorren bidea ibilgailuentzat moztu egingo da. **Proba 14:00etan hasi eta 21:00etan amaituko da.**

Uneoro, anbulantzia eta erreskate taldeak egongo dira bide osoan zehar, lasterketaz kanpoko edozein larrialdi dela ere ahalik eta azkarren bertaratzeko. Horrez gain, edozein larrialdiren aurrean lasterketa gelditu eta behar den pertsonala sartuko litzateke (Suhiltzaile, anbulantzia, ertzaina..). Larrialdirik ezean errepidea itxita egongo da proba bukatu artean.

Abaltzisketako bizilagunen batek atera beharra bazenute edozein arrazoi medio, aurrez deitu telefono honetara: **682536251**.

Egun horretan, antolatzaileen gomendioak errespetatzea eskatzen da.

Aurrez denoi eskerrak emanaz,

Abaltzisketan, 2017ko martxoaren 15ean.

Udalak